

Beharsarea, Getxon lana euskaraz

egizu!



EUSKARA BIZI

Euskara Zerbitzuak zubi lana egin ohi du euskal hiztunen eta langile euskaldunak behar dituzten pertsona, enpresa edo erakundeen artean. Askotan jasotzen ditugu ume zaintzaile, aisialdiko eta kirol begirale, klase partikularretarako irakasle edo hainbat zereginetarako langile euskaldunak nahi dituen jendearen eskaerak.

Zerbitzu hori bideratzeko eta aldi berean lan munduan euskararen erabilera sustatzeko www.beharsarea.net ataria antolatu dugu Interneten.

Jobberbase software libreko aplikazioan oinarrituta dago. Modu simple eta errazean zubi lan hori automatikoki egiten du, jendea behar duenaren eta lana behar duenaren artean. Erregistorik ere ez du eskatzen. Zerbitzua lehen aldiz erabiltzen duenaren mezua begiratu eta onetsi beharko da; hortik aurrera automatikoki zabalduko dira erabiltzaile horren mezu guztiak atarian.

Baldintza bi eskatzen zaizkie erabiltzaileei: lanak euskaraz burutzea eta lan baldintza duinetan jardutea.



Eskaintzak bilatu

(Adibidez "begirale", "ostalaria, Portu Zaharra", "irakasle, Areeta")

Lana
behar dut

Jendea
behar dut

Atariak Getxo udalerraren eremua hartzen du, **Euskara Zerbitzuak** eta **Egizu elkarteak** jorrotuta. Eraginkorra izateko holako tresna batek oinarrizko dinamizazioa behar duelakoan gaude eta, horretara, iristen garen esparrura mugatu nahi izan dugu hedadura.

Dena dela, software librean egin izanak tokiko ikuspegia gaintzeko bidea ere ematen du: nahi duenaren esku dago tresna hau hartu, egokitu eta bere eremura eramateko, euskarazko lan sarea zabalduz bide batez.



Getxo
bizi ezazu

www.beharsarea.net

egizugetxo@gmail.com

Tel.: 619 935 541

Kontakturako pertsona:

Rozio Luces

